

ONAN LOW COST

Kaixo, Nahia Hernández, Nere Rodríguez, Alazne González eta Olatz Gómez gara eta Barandiaran ikastetxean ikasten dugu.

Asko pentsatu eta gero eta proposamen askoz hitz egin ondoren, ONAN LOW COST izeneko enpresa sortzea erabaki dugu.



Gaur egun, argi dago produktu gehienak interneten bidez daudela eskuragai. Ordea, denda fisikoak gero eta gutxiago ikusten dira. Ildo beretik, Interneten bidez erosketak egiteko ohitura ez duten pertsonentzat produktu bitxiak erostea zaila egiten da. Hori pertsona askok aurre egin behar duten arazoa da.

Begi hutsez, interneteko konexio on bat izatea edonoren eskura dagoela pentsa dezakegu, baina hori ez da zertan egia izan behar. Beste aldetik, produktu bat erostea premiazkoa izanez gero, on-line dendetan eskuratzea ez da zertan aukera ona izan behar. Denda hauek bere stock guztia biltegietan banatuta daukate, eta horregatik, produktuak bidaltzeko orduan, bezeroen itxaronaldia luzea izan ohi da. Hori gutxi balitz, enpresa askok bidalketa-gastuak eskatzen dituzte, eta horrela bezeroak eskatu duen produktuaren prezioa baino diru gehiago ordaintzeko beharra du.



Hori guztia ikusita, gure denda sortzea iruditu zitzaigun hutsune hauek betetzeko.

Hainbat helburu ditu gure enpresak. Alde batetik, gure helburu nagusia interneten aurkitu ahal diren produktu gehienak gure dendan saltzea da, adibidez Amazonen edo Aliexpresen dauden produktuak gure denda fisikoan saltzea, jendeak eskuragai izateko. Beste aldetik, gure enpresan produktu bitxiak aurkitu ahal dituzue, hau da, bide arruntetik aurkitzeko produktuak eskuragarri jartzen ditugu, erraz aurkitzen ez direnak eta existitzen direla ez zenekien produktuak.

